



ALKATEAREN DEKRETUA

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana,

IKUSIRIK

Saila:	Euskara eta Hezkuntza Saila
Azpisaila:	Euskara eta Euskaltegia
Espedientea:	2023IORD0005
Gaia:	<i>Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.</i>

I. AURREKARIAK

Udal honen Udaltzakeria, 2017ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran, onartu zuen Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea (GAO, 2017ko uztailak 7, 130 zk.).

Era berean, Udaltzakeria, 2023ko urtarrilaren 26an eginiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailean egindako aldaketei.

Bestalde, hasieraz onartu berri den Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzaileak honakoa dio: *Alkatetzari ahalmena ematen zaio dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile bakoitzaren beharrezko aldaketak egiteko, ordenantza horiek Ordenantza Orokor honetan sartutako aldaketetara egokitzeko helburua baduten. Ordenantza espezifikoaren aldaketak Alkatetzaren Dekretu bidez ebazteko dira eta informazio publikoko izapide bideak jarraitzea.*

Erregimen Lokaleko oinarriak arautzen dituen legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko (GAO, 2023ko otsailak 2, 22 zk.).

Informazio publikorako epea amaitzen bada inolako erreklamaziorik egin gabe, onarpena behin betikoa izango da. Bestelako kasuan, udalbatza osoak aztertu eta ebatzi beharko ditu aurkeztutako alegazio edo iradokizunak, eta Ordenantza Orokorra behin betiko onespena eman, hala baderitzo.

Bestalde, Euskara eta Hezkuntza Sailak Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen



ordenantza espezifikoa onartu zuen, Udalbatzak 2017ko apirilaren 25ean hasierako onarpena eman zion eta jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik zein iradokizunik jaso ez zenez, behin betikoz onartutzat eman zen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko uztailaren 10ean (131. zk.).

II. EGINDAKO ALDAKETEN INGURUAN

Tolosako Udalaren eta bere Entitate Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean edukiaren egokitzapen eta moldaketa beharra dakarte, besteak beste, honako legeek:

- Enpresa Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea, 21 bis artikulua
- 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea, azken xedapenetako hamahirugarrena

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/20023 Lege Orokorri jarraiki zeharkako kostuen muga kendu da eta justifikatzeko kontu-erraztuaren inguruan ere argibideak sartu dira.

Aldaketok guztiok modu honetan eragiten diote Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen ordenantzari:

I. eranskineko (Tolosako enpresetan euskara planak sustatzeko dirulaguntzen arautegia) «2. Bete beharreko baldintzak» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
«Diru-laguntza eskuratu nahi duen enpresak ondorengo baldintzak bete beharko ditu: —Jarduera burutzeko Udalaren baimena izatea. —Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. —Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere».	«Dirulaguntza eskuratu nahi duen enpresak ondorengo baldintzak bete beharko ditu: —Jarduera burutzeko Udalaren baimena izatea. —Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. —Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira: 1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fi-



sikoak edo juridikoak.

2. **Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.**
3. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.**
4. **Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaien buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa. Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrita: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren**



	13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubi-dea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua».
--	--

II. eranskineko (Establezimendu komertzialetako errotuluak euskaratzeko dirulaguntzen arautegia) «2. Bete beharreko baldintzak» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. Era berean, diru-laguntza eskuratu nahi duen establezimendu komertzialak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <p>1.- Diru-laguntza establezimenduaren fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik emango da.</p> <p>2.- Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren %50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.</p> <p>3.- Errotulu nagusiak euskara hutsez egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia).</p> <p>4.- Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da diru-laguntzarik emango (Adib. Larrarte).</p> <p>5.- Diru-laguntza jaso ahal izateko, errotulu nagusia euskara hutsez egoteaz gain, establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta aldakorrek (erakusleihoa, toldoa, barruko oharrak, prezioak...) euskaraz ere egon behar du.</p> <p>6.- Diru-laguntza jaso ahal izateko Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan azaldu behar du.</p> <p>7.- Behin diru-laguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz</p>	<p>«Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. Era berean, dirulaguntza eskuratu nahi duen establezimendu komertzialak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <p>1.- Dirulaguntza establezimenduaren fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik emango da.</p> <p>2.- Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren % 50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.</p> <p>3.- Errotulu nagusiak euskara hutsez egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia).</p> <p>4.- Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da dirulaguntzarik emango (Adib. Larrarte).</p> <p>5.- Dirulaguntza jaso ahal izateko, errotulu nagusia euskara hutsez egoteaz gain, establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta aldakorrek (erakusleihoa, toldoa, barruko oharrak, prezioak...) euskaraz ere egon behar du.</p> <p>6.- Dirulaguntza jaso ahal izateko Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan azaldu behar du.</p> <p>7.- Behin diru-laguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz</p>



gain, hizkuntza paisaia finko eta aldakorrek ere euskaraz izan behar du. Hala ez bada, bere garaian jasotako diru-laguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.

8.- Diru-laguntza jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak:

- Tolosako Udalaren Erregistroan ematen den eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Establezimendua Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan egotearen ziurtagiria.
- Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru-kopuruaren ordainagiria.

9.- Diru-laguntza izaera ofizialekoak ez diren merkataritza edo/eta zernahi motatako erakundeei eman ahal izango zaie».

gain, hizkuntza paisaia finko eta aldakorrek ere euskaraz izan behar du. Hala ez bada, bere garaian jasotako diru-laguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.

8.- Dirulaguntza jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak:

- Tolosako Udalaren Erregistroan ematen den eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Establezimendua Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan egotearen ziurtagiria.
- Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru-kopuruaren ordainagiria.

9.- Dirulaguntza izaera ofizialekoak ez diren merkataritza edo/eta zernahi motatako erakundeei eman ahal izango zaie.

10. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizi-tzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emaku-



	<p>me-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaien buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa. Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubi-dea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua».</p>
--	--

III. eranskineko (Tolosako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak tolosarrentzat) «2. Bete beharreko baldintzak» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Diru-laguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tolosan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez. • HABEk homologatutako euskaltegiren batean euskara ikastaro batean 	<p>«Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tolosan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez. • HABEk homologatutako euskaltegiren batean euskara ikastaro batean

ESKUIc4de816-cf15-4810-8481-cf45a6754182



matrikulatu izana.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea, besteak beste, Administrazioarekin inolako zorrik ez izatea.

- Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: %85. Egiaztapena dagokion euskaltegiak egina izan behar du.

- Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiria izatea. Euskaltegiko zuzendariak datu hauek balidatuko ditu dagokion lekuan».

matrikulatu izana.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea, besteak beste, Administrazioarekin inolako zorrik ez izatea.

- Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: % 85. Egiaztapena dagokion euskaltegiak egina izan behar du.

- Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiria izatea. Euskaltegiko zuzendariak datu hauek balidatuko ditu dagokion lekuan.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizi-tzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktorengatik bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskri-



	<p>minazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaietara buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa. Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua».</p>
--	---

I. eranskineko (Tolosako enpresetan euskara planak sustatzeko dirulaguntzen arautegia) «6. Erabakia» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu. Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Hizkuntza Politikako udal batzorde informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio dagokion organoari, erabakia har dezan.</p>	<p>«Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak aztertuko ditu. Azkenik, Sailak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egin, eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran</p>



<p>Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntza dagokion gisan argitaratuko da. Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik».</p>	<p>emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da».</p>
---	--

II. eranskineko (Establezimendu komertzialetako errotuluak euskaratzeko dirulaguntzen arautegia) «6. Erabakia» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Eskaera aurkeztu ondoren, Udaleko Euskara Departamentuak aztertuko du, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko. Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da. Azkenik, Euskara Zerbitzuak, txosten teknikoa egin ondoren, proposamena egingo dio Alkatezari erabakia har dezan. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntzen informazioa dagokion moduan argitaratuko da».</p>	<p>«Eskaera aurkeztu ondoren, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak aztertuko du, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko. Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da. Azkenik, Sailak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egin, eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da. Halaber, emandako dirulaguntzen informazioa dagokion moduan argitaratuko da».</p>

III. eranskineko (Tolosako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak tolosarrentzat) «6. Erabakia» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Eskaerak iritsi ahala aztertuko ditu Euskara Departamentuak. Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, diru-laguntzak emateko proposamena egingo zaio Alkatezari erabakia har dezan. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta</p>	<p>«Eskaerak iritsi ahal aztertuko ditu Euskara eta Hezkuntza Sailak. Azkenik, Sailak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egin, eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia</p>

ESKUIc4de816-cf15-4810-8481-cf45a6754182



<p>gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia. Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da. Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki proposamena formulatu aurretik».</p>	<p>orekatua bermatuko da. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia. Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da. Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki proposamena formulatu aurretik».</p>
--	--

III. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ordenantza espezifikoa aldatzeko prozedura egingo da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori guztia kontuan hartuta, alkate honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen ordenantza espezifikoa aipatutako aldaketak hasieraz onartzea Alkate Dekretu bidez, Ordenantza Orokorraren aldaketarekin bat etor dadin, honako testua honen arabera:

I. eranskineko (Tolosako enpresetan euskara planak sustatzeko dirulaguntzen arautegia) «2. Bete beharreko baldintzak» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Diru-laguntza eskuratu nahi duen enpresak ondorengo baldintzak bete beharko ditu: —Jarduera burutzeko Udalaren baimena izatea. —Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. —Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere».</p>	<p>«Dirulaguntza eskuratu nahi duen enpresak ondorengo baldintzak bete beharko ditu: —Jarduera burutzeko Udalaren baimena izatea. —Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. —Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira: 1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea,</p>



jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

2. **Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoia direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.**
3. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.**
4. **Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktorengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar personal, sozial edo administratiboa. Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorruta: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen ko-**



	<p>ntrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubi-dea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua».</p>
--	---

II. eranskineko (Establezimendu komertzialetako errotuluak euskaratzeko dirulaguntzen arautegia) «2. Bete beharreko baldintzak» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. Era berean, diru-laguntza eskuratu nahi duen establezimendu komertzialak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <p>1.- Diru-laguntza establezimenduaren fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik emango da.</p> <p>2.- Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren %50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.</p> <p>3.- Errotulu nagusiak euskara hutsez egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia).</p> <p>4.- Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da diru-laguntzarik emango (Adib. Larrarte).</p> <p>5.- Diru-laguntza jaso ahal izateko, errotulu nagusia euskara hutsez egoteaz gain, establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta aldakorrak (erakusleihoa, toldoa, barruko oharrak, prezioak...) euskaraz ere egon behar du.</p>	<p>«Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea. Era berean, dirulaguntza eskuratu nahi duen establezimendu komertzialak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <p>1.- Dirulaguntza establezimenduaren fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik emango da.</p> <p>2.- Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren % 50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.</p> <p>3.- Errotulu nagusiak euskara hutsez egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia).</p> <p>4.- Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da dirulaguntzarik emango (Adib. Larrarte).</p> <p>5.- Dirulaguntza jaso ahal izateko, errotulu nagusia euskara hutsez egoteaz gain, establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta aldakorrak (erakusleihoa, toldoa, barruko oharrak, prezioak...) euskaraz ere egon behar du.</p>



<p>6.- Diru-laguntza jaso ahal izateko Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan azaldu behar du.</p> <p>7.- Behin diru-laguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz gain, hizkuntza paisaia finko eta aldakorrek ere euskaraz izan behar du. Hala ez bada, bere garaian jasotako diru-laguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.</p> <p>8.- Diru-laguntza jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Tolosako Udalaren Erregistroan ematen den eskaera-orria, behar bezala beteta.• Establezimendua Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan egotearen ziurtagiria.• Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru-kopuruaren ordainagiria. <p>9.- Diru-laguntza izaera ofizialekoak ez diren merkataritza edo/eta zernahi motatako erakundeei eman ahal izango zaie».</p>	<p>6.- Dirulaguntza jaso ahal izateko Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan azaldu behar du.</p> <p>7.- Behin dirulaguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz gain, hizkuntza paisaia finko eta aldakorrek ere euskaraz izan behar du. Hala ez bada, bere garaian jasotako dirulaguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.</p> <p>8.- Dirulaguntza jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Tolosako Udalaren Erregistroan ematen den eskaera-orria, behar bezala beteta.• Establezimendua Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan egotearen ziurtagiria.• Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru-kopuruaren ordainagiria. <p>9.- Dirulaguntza izaera ofizialekoak ez diren merkataritza edo/eta zernahi motatako erakundeei eman ahal izango zaie.</p> <p>10. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Xedeak edo helburuak, ki-deak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak dirrela-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza-
--	---



- rako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko irizkiak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo ingurubar pertsonal, sozial edo administratiboa.
- Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua».



III. eranskineko (Tolosako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak tolosarrentzat) «2. Bete beharreko baldintzak» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>«Diru-laguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Tolosan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez.• HABEk homologatutako euskaltegiren batean euskara ikastaro batean matrikulatu izana.• Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea, besteak beste, Administrazioarekin inolako zorrik ez izatea.• Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: %85. Egiaztapena dagokion euskaltegiak egina izan behar du.• Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiria izatea. Euskaltegiko zuzendariak datu hauek balidatuko ditu dagokion lekuan».	<p>«Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Tolosan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez.• HABEk homologatutako euskaltegiren batean euskara ikastaro batean matrikulatu izana.• Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea, besteak beste, Administrazioarekin inolako zorrik ez izatea.• Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: % 85. Egiaztapena dagokion euskaltegiak egina izan behar du.• Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiria izatea. Euskaltegiko zuzendariak datu hauek balidatuko ditu dagokion lekuan. <p>Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Xedeak edo helburuak, ki-deak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, anto-lamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.



3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktorengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo ingurubar pertsonal, sozial edo administratiboa.
Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorruta: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekre-



	tuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua».
--	---

I. eranskineko (Tolosako enpresetan euskara planak sustatzeko dirulaguntzen arautegia) «6. Erabakia» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
«Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu. Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Hizkuntza Politikako udal batzorde informatzaileak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio dagokion organoari, erabakia har dezan. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntza dagokion gisan argitaratuko da. Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik».	«Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak aztertuko ditu. Azkenik, Sailak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egin, eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da».

II. eranskineko (Establezimendu komertzialetako errotuluak euskaratzeko dirulaguntzen arautegia) «6. Erabakia» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
«Eskaera aurkeztu ondoren, Udaleko Euskara Departamentuak aztertuko du, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko. Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da. Azkenik, Euskara Zerbitzuak, txosten teknikoa egin ondoren, proposamena egingo dio Alkatezari erabakia har dezan. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntzen	«Eskaera aurkeztu ondoren, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak aztertuko du, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko. Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da. Azkenik, Sailak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egin, eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena



informazioa dagokion moduan argitaratuko da».	eman dezan. Batzordearen osieran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da. Halaber, emandako dirulaguntzen informazioa dagokion moduan argitaratuko da».
---	---

III. eranskineko (Tolosako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak tolosarrentzat) «6. Erabakia» atalean:

Aurreko testua:	Testu berria:
«Eskaerak iritsi ahala aztertuko ditu Euskara Departamentuak. Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, diru-laguntzak emateko proposamena egingo zaio Alkatezari erabakia har dezan. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia. Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da. Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki proposamena formulatu aurretik».	«Eskaerak iritsi ahal aztertuko ditu Euskara eta Hezkuntza Sailak. Azkenik, Sailak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egin, eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osieran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia. Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da. Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki proposamena formulatu aurretik».

BIGARRENA.- Proposatutako aldaketok Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailearen behin betiko onarpenera baldintzatzea.

HIRUGARRENA.- Ordenantza espezifikoaren aldaketa hauek eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea eragilei.

LAUGARRENA.- Informazio- eta entzunaldi-epea amaitu ondoren, Udalbatza osoak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu. Alegaziorik ez balitz aurkeztuko, ordenantza espezifikoa behin betikoz onartutzat joko da.



TOLOSAKO
UDALA

BOSGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta Iragarki taulan, eta Gardentasunaren atarian argitaratzea.

ALKATEA	Nire aurrean, IDAZKARIAK
Olatz Peon Ormazabal	Begoña Garmendia Vazquez

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

19

www.tolosa.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU1c4de816-cf15-4810-8481-cf45a6754182**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IORD0005-Alkatearen Dekretua/Alkatearen Dekretua (TOLOSAKO UDALA)